

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Zer den “papurras” bat (eta zer ez)

Hawk (2010).
Mark Lanegan eta Isobel Campbell.

BIZI NAIZEN inguruan “papurras” esapide euskañola erabiltzen dute batzuek –ez dut izen-abizenik eman-go– platerean soberan geratu denetik elikatzen denari esateko. Besteek hoberena hartu eta hondarrekin asetzeko gaitasuna edo egonarrria daukatenak dira “papurras” delakoak.


Ezin esan Mark Lanegan klub horretakoa denik. 1985ean The Screaming Trees taldea sortu zuen. Bateria-jole eskasa izaki, mikrofonoa hartzeko eskatu zioten taldekoek eta 1990eko hamarkadaren hasieran, Seattleko (AEB) grunge eztearen epizentroan zeuden “zuhaitz oihukariak”.

Ondorengo, gauza jakina da: Nirvanaren itzala luzegegia bihurtu zen gainontzeko ia talde guztientzat. Rock alternatiboaren harrobitik urrea atera nahi zuen edonor ospeletan lan egitera behartu zuen –so egin

orrialde batzuk atzerago, nola Kurt Cobainek oraindik zeresana ematen duen; eta 16 urte daramatza sator artean–.

Baina esan dugu: Lanegan ez da “papurras” bat. Grungearen txikleak zaporea galdu arren, belaunaldiko talde askok luzatu eta luzatu egin dute izan zirenaren bindikazioa, soberakinei hagina sartzeko nazka ez direla erakutsiz.

Horren aldean bakarkako ibilbide sendoa egin du Laneganek eta kolaborazio interesgarriak utzi: Queens of The Stone Age taldearekin jo du, The Gutter Twins bikotea osatu... Azken emaitza, Belle and Sebastian taldeko Isobel Campbellekin ondutako *Hawk* diskoa. Hirugarren lana dute elkarrekin, folk amerikarra eta bluesa uztartuz. Ez dute mundua asmatu LP honekin, baina emaitza zinez da ramegantea eta, 90etako eran esateko, asteak daramatza nire walkmanetik atera gabe. ■



BIZKAIKO DEBTSOLARI
KAPARRAKA 2010

5. KAPARRAKA

ERDU METROAN!

**azaroaren 7an,
GETXON,
ERROMOKO
GOBELA
KIROLDEGIAN
17:30ean**

**ENEKO ARRATE
ION BARROCAL
BEÑAT UGARTETXEA
OLATZ IBARLUZEA
GORKA LAZKANO
EÑAUT URUBURU**

Gai-emolea:
ZURINE IARRITU

Bizkaiko
BFA DFB
bbk
Getxo
EUSKARA BIZI
metro bilbao

LAGUNTZAILEA **argia**